

EDUKI IRAUNKORRAK

Kaiko eremuan. Aita Mari salbamendu ontziaren gunea iraunkorra, Pasaiaiko Blas de Lezo LHIIren gunea, Mater Museoarena, eta *Atyla* nahiz *Scylla* tamaina handiko ontziak.



Badian zehar. Jaialdiaren barruko ontzien nabigazioak hilaren 27tik 29ra, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

HILAK 26, OSTEGUNA

18:00etan hasita. Itsasontzien sarrera nagusia 2022ko Pasaia Itsas Festibala hasteko.

HILAK 27, OSTIRALA

Goizean. Badiako eskoletako ikasleek

(6-12 adin tartekoek) bisita egingo diete Porrotx, Marimotots eta Txo mikmak txikiari.

18:30. Joaldunak Trintxerpeko kaleetatik zehar.

19:00. Kaiko eremuan, Kyxo taldearen kontzertua.

20:30. Kaiko eremuan, Lamiak taldearen kontzertua.

22:30. Kaiko eremuan, Liher taldearen kontzertua gonbidatu bereziekin: Miren Narbaiza eta Noa Egiguren.

HILAK 28, LARUNBATA

10:00. Badian, itsas diana.

12:00. Barrutiko kaleetatik zehar, batukada.



HILAK 29, IGANDEA

10:00. Badian, itsas diana.

17:00. Trintxerpe eta San Pedro artean, itsas danborrada.

NOLA MUGITU JAIALDIAN

Motora. Pasaia Itsas Festibala bitartean hiru motora zerbitzu izango dira martxan, bat ohikoa, eta beste biak bereziak. Ohiko lineak Doniabneko Santiago plaza eta San Pedroko Torreatze batuko ditu: hilaren 26 eta 27an 06:30etik 23:00etara; hilaren 28an 07:00etatik 00:00ak arte; eta 29an 07:45etik 00:00ak arte.

Motora bereziak. Bi linea berezietako batek Trintxerpeko Hospitalilloa eta Donibaneko Bizkaia plaza (eta alderantziz) lotuko ditu, hilaren 26an 16:00etatik 20:00etara, eta hilaren 27tik 29ra 11:00etatik 20:00etara. Beste linea berezia Donibaneko Bizkaia plaza eta San Pedroko Torreatze (eta alderantziz) lotuko dituena da, aurreko motoraren ordutegi berberarekin.

Txu-Txu tren. Jaialdi osoan zehar Trintxerpeko Hospitalilloa eta San Pedroko pilotalekuko biribilgunea batuko ditu garraioideak.

